

EBAZPENA, IRAKASLE-IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ORDEZKAPENETARAKO EGINDAKO DEI BATZUETAN GERTATUTAKO AKATSA ZUZENTZEKOA

GERTAKARIAK

Bakarra.- Urtarrilean zehar ordezkapenetarako zenbait dei egin dira, baina aplikazioan akats bat egon da, dei horietako zenbaiti eragiten diena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa; Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehaztekoa; UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko Arautegia, 2022ko martxoaren 31koa (2022ko maiatzaren 18ko EHAA); eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Lehena.- UPV/EHUko gerenteak eskumena dauka, eskuordetzaz, ebazpen hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena dela bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko ebazpena, 2025eko otsailaren 19ko EHAA).

Hirugarrena.- 39/2015 Legearen 109.2 artikulua dioenez, «Herri administrazioek, beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak». Gertakarien ataleko puntu bakarrean adierazi dugunez, akats bat gertatu da, lege horretan aipatzen direnen modukoa, eta errakuntza hori zuzendu beharra dago.

Honela dio Poltsen Arautegiko 7.1 artikulua:

“Ordezkoa behar denean, kasuan kasuko sail eta jakintza arlorako dagoen izangai doktoreen zerrenda hartuko da, eta zehaztutako profila (hizkuntza eta titulua), aukerak eta zerrendako hurrenkera kontuan izanda, mezua bidaliko zaie (bigarren xedapen gehigarrian adierazitako bideak erabilita) ordezkotza egiteko moduan dauden izangaiei. Mezuan ordezkotzaren ezaugarri nagusiak zehaztuko dira, hau da: ordezkotza mota (aldi baterako ezintasuna, kargua edo plaza hutsa), hizkuntza, arduraldia, ikastegia, irakaskuntza mota, gaiak, ezaugarri bereziak, ordutegia, ustezko iraupena, saileko zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko bideak eta interesgarri izan daitekeen gainontzeko informazioa.

Mezu hori izangai ez-doktoreez osatutako zerrenda osagarriko kideei ere bidaliko zaie, jakintza arlokoei, zein kideko jakintza arlokoei.

Zerrendako kideek bi eguneko epea izango dute, jakinarazpena hartzen dutenetik kontatzen hasita, bitarteko telematikoen bidez adierazteko ordezkotza egiteko interesik duten edo uko egin nahi dioten eskaintzari. Salbuespenezko inguruabarrak direla medio, aurreko paragrafoetan aipatutako epea luzatu ahal izango da, zehaztutako bi egunetan salbuespen egoera egiaztatu eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak aztertu beharko duena.

Ordezkatza eskainiko zaio doktoreen zerrendan interesa erakutsi eta libre daudenen artetik hurrenkeraren arabera lehenengo dagoen izangaiari. Inork ez badu interesik erakutsi edo ez badago inor libre, ordezkotza esleituko zaio, irizpide berei jarraituz, ez-doktoreen zerrendan lehenengo dagoenari.

Ordezkozaren esleipendunak 2 egun balioduneko epea izango du (esleipena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita) kontratua sinatzeko. Epe horretan ez bada kontratua sinatzera agertu, ordezkotza irakasle izateari uko egin diola ulertuko da, eta, ondorioz, zerrendako hurrengoari deituko zaio”.

Aplikazioaren akats baten ondorioz, zenbait dei egin dira arautegiko erregelak bete gabe. Beraz, akats hori zuzendu beharra dago.

Horregatik guztiatik, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Honako dei hauetan egindako akatsa zuzentzea, eta, hortaz, deiok indarririk gabe uztea:

POLTSA ZK.	ESKATUTAKO LANPOSTUA	SAILA
25	LINTC8L3-D00054-31	Enpresen Antolakuntza
26	LINTC8L3-D00054-31	Enpresen Antolakuntza
25	LINTC8L3-D00054-30	Enpresen Antolakuntza
26	LINTC8L3-D00054-30	Enpresen Antolakuntza
25	SUSC8L3-D00054-2	Enpresen Antolakuntza
26	SUSC8L3-D00054-2	Enpresen Antolakuntza
25	SUSC4L3-D00054-4	Enpresen Antolakuntza
26	SUSC4L3-D00054-4	Enpresen Antolakuntza
43	SUSC8L3-D00331-9	Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila
44	SUSC8L3-D00331-9	Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila
43	SUSC8L3-D00331-10	Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila

44	SUSC8L3-D00331-10	Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila
300	SUSC8L3-D00237-5	Teknologia Elektronikoa
301	SUSC8L3-D00237-5	Teknologia Elektronikoa
300	SUSC8L3-D00237-6	Teknologia Elektronikoa
301	SUSC8L3-D00237-6	Teknologia Elektronikoa
396	SUSC8L3-D00048-17	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
397	SUSC8L3-D00048-17	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
396	SUSC8L3-D00048-18	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
397	SUSC8L3-D00048-18	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
402	LINTC8L3-D00145-10	Ingeniaritza Mekanikoa
403	LINTC8L3-D00145-10	Ingeniaritza Mekanikoa
402	LINTC8L3-D00145-11	Ingeniaritza Mekanikoa
403	LINTC8L3-D00145-11	Ingeniaritza Mekanikoa
407	SUSC8L3-D00142-2	Ingeniaritza Elektrikoa
408	SUSC8L3-D00142-2	Ingeniaritza Elektrikoa
414	SUSC8L3-D00334-1	Ekonomia eta Rudeaketa
415	LINTC8L3-D00334-15	Ekonomia eta Rudeaketa
416	LINTC8L3-D00334-15	Ekonomia eta Rudeaketa
415	LINTC8L3-D00334-16	Ekonomia eta Rudeaketa
416	LINTC8L3-D00334-16	Ekonomia eta Rudeaketa
422	SUSC8L3-D00334-1	Ekonomia eta Rudeaketa
497	SUSC8L3-D00112-10	Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza
498	SUSC8L3-D00112-10	Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza

Bigarrena.- Argitara eman bedi ebazpen hau. Har beza kontuan hala egitea dagokion Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuko atalak.

Hirugarrena.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke ordena horretako dagokion Bilboko epaitegian, edo demandatzaileak egoitza duen barrutiko epaitegian, bere aukeran, bi hilabeteko epean, ebazpena ofizialki jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.2 a), 10.1 j) eta 14.1 bigarrena art.).

Leioan, sinadurako datan.

ERREKTOREA

Eskuordetzaz: Efren Areskurrinaga Mirandona (errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, otsailaren 19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen errektoreordea